

Izenburua

Nola egin

Izenburua

- **Testua**
- **Ulermena**
- **Sinonimoak**
- **Informazio guneak**
- **Testuaren gaia**
- **Gaiarekiko informazio nagusiak**
- **Tesi izenburua**
- **Ondorioztatu**

Lehen saioa	53
<i>Bertsolaritza</i>	
Bigarren saioa	56
<i>Olinpiadak</i>	
Ariketa testuak	59
<i>Satanizazioa</i>	
<i>Hirietako gaueko argitasuna</i>	
<i>Unibertsalitatea</i>	
<i>Eboluzioa</i>	

HELBURUAK

1. Testu tekniko baten **tesi zenburua** adierazteko teknika landuko dugu.
2. **Izenburuen** arteko aldeak edo desberdintasunak ikusiko ditugu.
3. Informazio testuen ideia nagusia edo **tesia** antzematen ikasiko dugu.
4. **Izenburuaren** bidez testuko **gaia** eta hau osatzen duten informazioen sintesia egiten ikasiko dugu.
5. Testua deskriptiboetarako izenbururik edo eta kazetaritza edo publizitate mailakorik ez dugu landuko.

URRATS METODOLOGIKOAK

- A **Informazio testu bat** izango dugu abiapuntu.
(Informazio testuak ez dira literatur testuak.)
- B **Ulermena** ariketaren bidez testua behar bezala jaso dugula ziurtatuko dugu.
- C **Sinonimoak** landuz testuko zenbait hitz edo eta esamolderen zentzuaz jabetuko gara.
- D **Informazio guneak** mugatuko ditugu testuan, hots, ideia garrantzitsuenak nondik nora hedatzen diren.
- E **Testuaren gaia** finkatuko dugu, hura izango baita izenbururako erreferentzia nagusia.
- F **Gaiarekiko informazio nagusiak** bilduko ditugu, gaia horietako egokienekin eta zehatzenekin osatzeko.
- G **Tesi izenburua** aterako dugu, hots, testuko informazio edo baieztapen nagusiena.
- H Azken urratsa **ondorioztatzea** izango da, ikasi dugunaz gogoetatzeko eta funtsezkoena gogoan izateko.

LAN PROZEDURA

Bi saio egingo ditugu beste horrenbeste testurekin eta bakoitzean aipaturiko urrats metodologikoak beteko ditugu. Saio batetik bestera, eta testu bakoitzaren berezitasunen arabera, xehetasun edo ikuspuntu berriak gehituko dira.

Prozesua osatzeko lau ariketa testu iruzkinduko ditugu, teknika finkatzeko.



gertatu ahala:
gertatuaz batera

Eman dezagun: jo
dezagun, suposatu 10
dezagun
ikusi berri da:
duela gutxi ikusi
du

●●● Testua

Azkenik, bertsolaritza gustatzeko, badago beste elementu bat oso berezia, bertsolariaren originaltasun nagusia ematen duena, eta beste arteek ez dutena: bat-batekotasuna. Era batera sortu eta interpretatu. Beste era batera esanik, gertatu ahala kantatu. Ez gertatua kantatu, gertatzen ari dena baizik. Kantatzen da edo kanta liteke, behintzat. Orduan entzuleak ere bertan sarturik daude. Haiek ere bertsoen gai dira.

Eman dezagun plaza batean gaudela. Aurretik beste ikuskizun batzuk izan dira. Jendea hura ikusi berri da eta, segun zer ikuskizun, hunkiturik edo barreka edo asperturik dago. Bertsolariak igoten dira eta bat-batean huraxe kantatzen dute. Gertatu berri dena eta gertatzen ari dena. Zeren, asto lasterka bat izan bada, adibidez, han daude oraindik astoak, han daude astodunak, han dago giro guztia. Bertsolaria kantatzen ari dela, beharbada, asto batek arrantza egiten du eta bertsolariak berehala hartaz kantatzen du. Hori da bertsolariaren arrakasta nagusia ematen duena, momentuko ustekabea, momentuko berritasuna, momentuak berak emana. Hori da inprobisazioaren funtsa. Horrek ez du esan nahi beti eta denak horrela izan behar duenik. Baina horretatik proportzio handirik ez baldin badu, bertsolaritza artifizialtzen ari da.

◀ Ulermena

Irakurri hurrengo baieztapenak eta markatu erantzuna.

E F

- | | | |
|------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|-----------------------|
| 1. Bertsolaria originala izatea da bat-batekotasuna. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 2. Bat-batekotasuna, funtsean, inprobisazioa da. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 3. Bat-batekotasuna gertatu den zerbaiti buruz bertsoak egitea da. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 4. Bertsolaritzan entzuleekiko lotura oso garrantzitsua da. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 5. Bat-batekotasunaren teknika plazetan betetzen da, batez ere. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 6. Gertakizun barregarriren bat behar da bertsolariak bat-batekotasunez aritzeko. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 7. Bertsolarien jardunean bat-batekotasunak garrantzi handia du. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 8. Bertsolaritza, bat-batekoa denez, beti dago momentuko gertakizunen bati loturik. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |

◀ Sinonimoak

Testuan duten zentzua aintzat harturik, eman ezazu hitz horien sinonimo bana edo azalpen laburra.

Berezia

Bat-batekotasuna

Gertatu ahala

Behintzat

Ikuskizun

Hunkiturik

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Beharbada

Arrantza egin

Inprobisazioa

Funtsa

Proportzio

Artifizialdu

.....

.....

.....

.....

.....

.....

◀▶ Informazio guneak

Kokatu eta idatzi ondoko informazioak, dagokien atalari loturik.

a) Bat-batekotamunaren adibide bat

b) Bat-batekotamunaren garrantzia

c) Bertsolaritzaren elementu berezia

d) Bat-batekotamuna zertan den

1

2

3

4

Azkenik, bertsolaritza gustatzeko, badago beste elementu bat oso berezia, bertsolariaren originaltasun nagusia ematen duena, eta beste arteek ez dutena: bat-batekotasuna. Era batera sortu eta interpretatu. Beste era batera esanik, gertatu ahala kantatu. Ez gertatua kantatu, gertatzen ari dena baizik. Kantatzen da edo kanta liteke, behintzat. Orduan entzuleak ere bertan sarturik daude. Haiek ere bertsoen gai dira.

Eman dezagun plaza batean gaudela. Aurretik beste ikuskizun batzuk izan dira. Jendea hura ikusi berri da eta, segun zer ikuskizun, hunkiturik edo barreka edo asperturik dago. Bertsolariak igoten dira eta bat-batean huraxe kantatzen dute. Gertatu berri dena eta gertatzen ari dena. Zeren, asto lasterka bat izan bada, adibidez, han daude oraindik astoak, han daude astodunak, han dago giro guztia. Bertsolaria kantatzen ari dela, beharbada, asto batek arrantza egiten du eta bertsolariak berehala hartaz kantatzen du. Hori da bertsolariaren arrakasta nagusia ematen duena, momentuko ustekabea, momentuko berritasuna, momentuak berak emana. Hori da inprobisazioaren funtsa. Horrek ez du esan nahi beti eta denak horrela izan behar duenik. Baina horretatik proportzio handirik ez baldin badu, bertsolaritza artifizialtzen ari da.

◀▶ Testuaren gaia

Hurrengoetatik, aukeratu testuko gai nagusia. Markatu bat, zure iritzian zehatzena dena.

- 1. Bertsolaritza
- 2. Bertsolaritzaren ezaugarriak
- 3. Bat-batekotasuna
- 4. Bertsolarien teknika
- 5. Bertsolaritzaren originaltasuna
- 6. Bertsolarien arrakasta

◀▶ Gaiarekiko informazio nagusiak

Testuaren **muina** edo **oinarria** den kontzeptu nagusia aukeratua duzularik, ahalegindu zaitez hori osatzeko testuak dioena zehatz-mehatz finkatzen.

Idatzi ezker aldean aukeratu duzun **gaia** eta lotu eskuin aldeko **informazio** egokienekin.

Gaia
<div style="border: 1px solid gray; width: 100%; height: 100%;"></div>

Informazioak
<p>... inprobisatua eta originala</p> <p>... bertsolaritzaren osagai berezia eta garrantzitsua</p> <p>... gertatzen denaz kantatzea, edonon eta edonoiz</p> <p>... inguruko gertakizunen araberakoa</p> <p>... teknika konplexua eta arrakastatsua</p>

◀ Tesi izenburua

Idatzi orain aurreko atalean lortu duzun izenburua, osorik:

◀ Bestelako izenburu batzuk

Bai Ez

1. Atera duzun izenburuak testuko informazio guztiak biltzen al ditu?
2. Atera duzun izenburuak testuaren **muina** jasotzen al du?
3. Izenburu horrekin, testua irakurri ez duen batek atzemango luke testuaren zentzua? ...
4. Izenburu horrek testua zertaz den soilik aipatzen du, deskriptiboa da?
5. Baieztapena al da?
6. Izenburu luzea atera dela uste duzu?
7. Izenburuan aditzak falta direla uste duzu?
8. Aterarazi dizugunaren ordeztu besteren bat nahiago zenuke?

Bai erantzun baldin baduzu, idatzi hemen zure proposamena:

.....

Saillatu hurrengo izenburuak azalpen hauen arabera. Idatzi bakoitzaren ezaugarriak.

- **Irekia** da; ez du zehazten testuaren mezu nagusia.
- **Zehatza** da; ez du interpretazio desberdinetarako aukerarik ematen.

- Ez da **tesi izenburua**; testua zertaz den besterik ez du azaltzen; deskriptiboa da.
- **Tesi izenburua** da, baina ez da egokia; testuko mezua alderdi bat biltzen du soilik.

1. Bertsolaritza eta bat-batekotasuna
2. Bat-batekotasuna garrantzizkoa al da bertsolaritzan?
3. Bat-batekotasunaren garrantzia bertsolaritzan
4. Zer da bat-batekotasuna?

◀ Ondorioztatu

Bai Ez

1. Izenburua zenbat eta laburragoa hainbat eta orokorragoa izango da.
2. Izenburuak zortzi-hamar hitzetik gorakoak ere izan daitezke.
3. Izenburuetan, zentzua ez nahasteko, beharrezkoa da adizki jokatuak (osoak) jartzea.
4. Tesia testuko ideia edo baieztapen nagusia da.
5. Izenburuan tesia biltzen da.
6. Izenburuan nahikoa da testuko kontzeptu nagusia jartzea.
7. Izenburuak itxia izan behar du, interpretazioetarako aukerarik eskaini gabe.
8. Tesi izenburuak galderazkoak ere izan daitezke.



Olinpismoa:
izpiritu olinpikoa
aldarrikatu:
proklamatu
ideal: asmo, xede

zehazki: batik bat

xede: helburua
garra: bizitasuna
heleniar: greziarra

●●● Testua

Olinpiadak Olinpismoaren filosofiaren zatitxo bat baizik ez dira. Olinpismoa Pierre de Coubertin baroi frantsesak aldarrikatu zuen XIX. mendearen amaiera aldera, herrien arteko bake, batasun eta adiskidetasun bezala. Eta, bide horretatik, ideal horien agerpen nagusi izango ziren Olinpiar Joko Modernoak sortu zituen 1896an.

Olinpiar Jokoak, ordea, lehenagokoak dira. Kristo aurreko 776. urtean egin ziren lehen Olinpiadak Olinpia izeneko herrixkan. Baina, halere, ez ziren ospatzen ziren Joko bakarrak; Greziako beste zenbait herritan ere, beste hirutan zehazki, Joko Pitikoak, Ismikoak eta Nemeakoak ospatzen ziren, Apolo, Poseidon eta Zeusen omenez.

Jokoak ez ziren prestakuntza filosofikoa agertzeko soilik, ospakizun erlijiosoak ere baziren eta beren helburua, gorputza eta arima elkartuz, greziar gizon perfektua lortzea zen: indartsua, jakintsua eta ederra. Xede hauen inguruan hartu zuen garra eta indarra heleniar zibilizazioak, eta historia osoko arkitektura eta eskultura garrantzitsuenetarikoak egin ziren.

◀▶ Ideia garrantzitsuenak

Hurrengoetatik zein izan daitezke testuko **bi** ideia garrantzitsuenak?

1. Olinpismoa: herrien arteko bakea, batasuna eta adiskidetasuna
2. 1896: lehen Joko Olinpiko modernoak
3. Coubertin: Olinpismoaren aldarrikatzailea eta Olinpiada modernoaren sortzailea
4. Joko Olinpikoek Grezian jatorria, antzinatean
5. Olinpiar jokoek greziar gizon orekatua helburu
6. Joko Olinpikoak greziar zibilizazioaren bultzatzaile gertatu ziren
7. Antzinateko greziar Joko Olinpikoak arkitektura eta eskulturarako oso garrantzitsuak

◀▶ Testuaren gaia

Ideia garrantzitsuenak kontuan izanik, aukeratu testuaren gaia:

- | | |
|-------------------------------------------------|----------------------------------------------------------|
| 1. <input type="radio"/> Coubertin | 5. <input type="radio"/> Olinpiaden helburuak |
| 2. <input type="radio"/> Olinpiada modernoak | 6. <input type="radio"/> Olinpiaden jatorria |
| 3. <input type="radio"/> Antzinateko olinpiadak | 7. <input type="radio"/> Olinpiaden garrantzia |
| 4. <input type="radio"/> Olinpismoa | 8. <input type="radio"/> Joko Olinpikoen nondik-norakoak |

Agian, horietako bat bakarra aukeratzea zaila gertatuko zaizunez, beste era batera bideratuko dugu. Aukeratu galdera honen erantzuna:


Zein da testuaren ardatza?

- Coubertin eta Olinpiada modernoak; hau da ardatza. Antzinako Greziako Olinpiadei buruzko informazioa osagarria da, Joko Olinpiko modernoen aurrekari historikoak azaltzeko.
- Antzinako Olinpiadak, hau da ardatza. Olinpismoa eta Olinpiada modernoei buruzko informazioa sarrera moduko zerbit da.

◀▶ Gaiarekiko informazio nagusiak

Testuaren **muina** edo **oinarria** den kontzeptu nagusia aukeratu ahal izan baduzu, hori osatzeko testuak horretaz dioena ahalik eta zehatzen finkatzen ahalegindu behar duzu.

Idatzi ezker aldean aukeratu duzun **gaia** eta lotu eskuin aldeko **informazio** egokienekin.

Gaia	Informazioak
	... Grezian sortuak, Olinpia herrixkan ... greziar gizon perfektua helburu ... greziar jatorriko Joko Olinpiko modernoek sortzailea ... herrien arteko bakea, batasuna eta adiskidetasuna ... XIX. mendearen amaierakoak ... Grezian sortuak, jainkoen omenez

◀▶ Tesi izenburua

Gaia eta honekiko informazioak loturik, idatzi atera duzun izenburua, osorik:

◀▶ Ondorioztatu

Egizu gogoeta eta erantzun hurrengo galderari:

- | | Bai | Ez |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|-----------------------|
| 1. Testuko informazio guztiak biltzen al ditu? | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 2. Testuko informazio garrantzitsuenak biltzen al ditu? | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 3. Aukeratu duzun izenburuarekin, testua irakurri ez duen batek antzemango al luke testuaren mezu nagusia? | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 5. Baieztapena al da? | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 6. Aterarazi dizugunaren orde besteren bat nahiago zenuke? | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |

Bai erantzun baldin baduzu, idatzi hemen zure proposamena:

.....

A Aztertu hurrengo izenburuak eta sailkatu bakoitza hurrengo bi multzoetatik ezaugarri bana harturik:

- **Irekia** da; ez du zehazten testuaren mezu nagusia.
 - **Zehatza** da; ez du interpretazio desberdinetarako aukerarik ematen.
-
- Ez da **tesi izenburua**; testua zertaz den besterik ez du azaltzen; deskriptiboa da.
 - **Tesi izenburua** da, baina ez da egokia; testuko mezuaren alderdi bat biltzen du soilik.

1. Olinpiada modernoak eta antzinakoak
..... /
2. Olinpismoa eta Olinpiadak
..... /
3. Grezia, Joko Olinpiko modernoen jatorria
..... /
4. Joko Olinpikoak
..... /
5. Olinpiada modernoak: Coubertinek sortuak
..... /
6. Olinpiaden historia
..... /


◀▶ Ondorioztatu

Markatu hurrengo adierazpenak zuzenak diren ala ez.

Bai Ez

- | | | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|-----------------------|
| 1. Izenburu zehatzenak tesi izenburuak dira. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 2. Izenburuan gaia edo kontzeptu nagusia aipatzea nahikoa da. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 3. Izenburu deskriptiboak zertaz galderari erantzuten diotenak dira. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 4. Aditzik gabe ezin da izenburu egokirik sortu. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 5. Izenburuek itxiak izan behar dute, hots, zentzu mugatukoak. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 6. Izenburuak irekiak direla esaten dugu interpretazio desberdinetarako bide ematen dutenean. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 7. Tesi izenburua honela egituratzen da: gaia + informazio zehatzak. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 8. Tesi izenburuaren luzera egokia: lau-zortzi hitz bitartekoa. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 9. Tesi izenburuaren gaia hitz bat edo sintagma bat izaten da. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 10. Tesi izenburuan bi puntu erabiltzea lagungarri gertatzen da gehienetan. | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |

●●● Ariketa testuak



satanizatu: gaiztotzat hartu

arketipo: eredia, ideala

gatazka: liskarra, tirabira

balantza: oreka edo justiziaren sinboloa

manikeismoa: satanizazioa

artekorik: erdi biderik

omen: esan liteke

Jerusalem: kristauak

Babilonia: mairuak

bihotzeko bide: sentimendu

Satanizazioaren lehen urratsa gauzak bitan banatzea da. Harrigarria da gauzak bitan banatzeko dugun joera. Ez dakit burmuineko zein egitura edo zein arketipo kolektibo dagoen bikoizteko joeraren azpian, baina funtsezko zerbait da.

Mundua edo gauzak bitan banatzeak, sinplifikazio eta bikoiztasun honek, banatutako bi aldeen arteko oposizioa suposatzen du. Areago: bi aldeen arteko oposizioak bien arteko gatazkara garamatza. Izan ere, mundua alde bitan banatzen duenarentzat, nolabait, alde bat ona izaten da eta bestea txarra, bata berez ona eta bestea berez txarra.

Balantzaren argudioa burges tipi eta jende intelektualaren ezaugarria bada, manikeismoa argitasun gutxiko jendearen artean ematen da. Hain zuzen ere, areagotu egiten da gatazka egoeretan. Borroketan, grinak nagusitzen diren heinean, muga zehatz bat marrazten da, alde biren artean; artekorik ez da geratzen, omen, eta beste aldekoa satanizatu egiten da. Gu Jerusalem gara, pentsatzen da, beste guztiak Babilonia.

Eta bide horretatik, bihotzeko bide galdu horretatik, ez da inora joaten, imajina faltsuen behelainoetan galtzera baino; hau da, mesfidantza eta libertateak suntsitzera.

◀▶ Ideia garrantzitsuenak

Zeintzuk dira testuko **bi** ideia garrantzitsuenak?

1. Gauzetan bi alde ikusteko joera, satanizazioa, oso errotua
2. Bi alde aurkako soilik ikusteak, edo ona edo txarra, gatazka eragin
3. Manikeismoak, edo ona edo txarra ikusteak, satanizazioa
4. Satanizazioa distorsionatzailea eta zapaltzailea

◀▶ Gaia eta informazio nagusiak


Aukeratu testuaren **muina** edo **oinarria** den kontzeptu nagusia eta osatu hori informazio zehatzenekin.

Gaia

Informazioak
.....

◀▶ Tesi izenburua

Gaia eta honekiko informazioak loturik, idatzi atera duzun izenburua, osorik:



behatokiak: begiralekuak

eragotzi: oztopatu, galarazi

eskueran: helmenean

5 **M**unduko leku askotan ari da gertatzen garai bateko astronomi behatokiak beste leku batera eraman beharra, hirietako gaueko argia dela-eta erabili ezinik geratu baitira. Estatu Batuetan, adibidez, Kaliforniako Wilson menditik Edwin Hubble astronomo famatuak Andromeda galaxiarainoko distantzia neurtu ahal izan zuen bertako teleskopioak erabilita. Gaur egun, ordea, Los Angeles hiriko argiak medio, ezin dituzte erabili. Parisen ere beste horrenbeste gertatu zaie. Duela mende bat Pariseko behatokitik Pleiades-ko nebulosei argazkiak atera zizkieten; baina orain behatokia erabili ezinik dabilta, hiriko argitasunak eragozten dielako.

10 Biztanleak ugaldtu ahala, hirietan gero eta argi inguru handiagoa sortu da urteetan zehar. Kaleak argitzeko ipintzen diren lanparek argitu egiten dute zerua, hiritar gehienak Esne Bidea eta izar ugari ikusi ezinik gelditzeraino.

15 Gure zibilizazio modernoak gaua zer den ahanztarazi egin digu. Gure bizimodua jadanik ez du eguzki argiak mugatzen eta baldintzatzen. Argitasun artifizialari esker lehen egin ezin ziren lanak orain batera zailtasunik gabe burutu daitezke Eguzkia aspaldi sartuta egon arren. Eguzki artifiziala sortzen dugu Eguzkia ezkutatu ondoren, hirietako umeek gau beltza zer den ere ez dakitelarik. Hori erabateko aurrerapena izango litzateke, gau oskarbian unibertsoaren handitasuna dastatzeko aukerarik kenduko ez baligu. Izan ere, gure arbasoak txunditurik uzten zituen gaueko ikuskizunik jadanik ez baitugu eskueran.

▶ Ideia garrantzitsuenak

Hurrengoetatik, zeintzuk dira **hiru** ideiarik garrantzitsuenak?

- 1. Hirietako gaueko argitasuna inguruetako astronomi behatokietarako oztopo
- 2. Kaliforniako Wilson mendiko behatokia eta Parisekoa erabili ezinik argiagatik
- 3. Hirietako gero eta argitasun handiagoak zeruaren ikuspegia ezkutatu
- 4. Argitasun artifizialak gure bizitza erraztu
- 5. Argitasun artifizialak unibertsoaren ikuskizuna galarazi

▶ Gaia eta informazio nagusiak


Aukeratu testuaren **muina** edo **oinarria** den kontzeptu nagusia eta osatu hori informazio zehatzenekin.

Gaia
<input style="width: 100%; height: 20px;" type="text"/>

Informazioak
<input style="width: 100%; height: 20px;" type="text"/> <input style="width: 100%; height: 20px;" type="text"/>

▶ Tesi izenburua

Gaia eta honekiko informazioak loturik, idatzi atera duzun izenburua, osorik:



unibertsalitatea: unibertsala izatea

Babel: Jainkoak, hizkuntza asko emanez, gizakiak nahastu zituen. Harrezkero, dibertsitatearen sinbolo.

kosmopolitismoa: leku, ohitura, bizimodu desberdinetara egokitzea

enparauak: gainerakoak

mediazioa: bitartekoa

Egungo unibertsalitatea ez da hainbeste politikoa, baina kontsumoan oinarritzen da; ez dago hizkuntzaren aldetik unibertsaliterik, hizkuntza aldetik mundua oraindik Babel delako; badago ibiltari soilen kosmopolitismoa, munduan bidazti dabilzanena, baina ez da jende hau ere egungo unibertsalitatearen oinarria.

Egungo unibertsalitatearen oinarriak lengoia mota bi dira: irudiena eta musikarena. Egungo lengoiairik unibertsalena ikonikoa da, hau da, imajinen bidez emandakoa; fotografiak, telebisiok eta enparauak jakintza berehalakoa eta zabala ematen digute. Areago, imajinak mundu guztira hedatu eta popularizatu diren heinean, mundu guztiko biztanleek eszenario berbera zapaltzen dugulako kontzientzia dugu. Imajinen lengoia da unibertsalena, Babel dorreko mediazioa, ezagumen mailan. Baina badago beste lengoia unibertsal bat, unibertsalitatearen beste oinarria, musikarena, alegia: bai musika klasikoa, bai rock guztia lengoia unibertsalak dira, munduaren hegal guztietara zabaltzen dira, eta ez dute jakintza eskaintzen, baina bai identifikazioa. Gure Babel dorrean, beraz, musikak ematen du mediazio afektiboa.

Hizkuntzetan ez. Ez da gertatu uniformizazio linguistikoa; ez da hizkuntza bat erabat nagusitu, hitz berriak hizkuntza guztietara berdintsuak sartu arren, hizkuntza bakoitzak ez ditu galdu bere erroak.

◀▶ Ideia garrantzitsuenak

Hurrengoetatik, zeintzuk dira **bi** ideiarik garrantzitsuenak?

1. Egungo unibertsalitatea kontsumo mailakoa, ez politikoa ez hizkuntzazkoa
2. Egungo unibertsalitateak bi oinarri: irudia eta musika
3. Imajinen lengoia, ikonikoa, unibertsalena
4. Musika lengoia ere mediazio afektibo unibertsala
5. Hizkuntzetan uniformizaziorik ez, hartu-emanak gertatu arren

◀▶ Gaia eta informazio nagusiak


Aukeratu testuaren **muina** edo **oinarria** den kontzeptu nagusia eta osatu hori informazio zehatzenekin.

Gaia

Informazioak
.....

◀▶ Tesi izenburua

Gaia eta honekiko informazioak loturik, idatzi atera duzun izenburua, osorik:



Linne: naturalista suediarra (1707-1778). Landareen sailkapen zabal baten egilea.

fermuki: irmoki
berbetan: hitzetan, hitzekin

ontogenia: bilakaera, garapena

antropomorfitiko: giza itxurakoa

5 **I**zaki batzuk beste batzuetatik eboluzionatuz sor zitezkeelakoari buruz Aristotelerengandik aurrera jende askok espekulatu zuen. Baina, kristautasuna indartuz eta beronen eragina handituz zihoazen heinean, espekulazio mota hauek gero eta gaitzespen gogorragoak jasan behar izan zituzten. Izan ere, Bibliako

10 **G**enesiaren lehen kapituluan bizidun oro bakoitzari zegokion espeziearen arabera kreatua izan zela argi eta garbi finkatzen zen. Hitzez hitz hartuta, ideia horrek honako hau adierazten zuen: espezieak aldaezinak zirela eta, hortaz, hasiera-hasieratik itxura berbera izan zutela. Linne-k berak, zeina bizidunen arteko antzekotasun miresgarriek txunditurik utzi baitzuten, espezieen aldaezintasuna fermuki defendatzen zuen.

15 **G**aur egun, bizidunen espezieak bata bestearengandik eratorriak direla ia inork ukatzen ez badu ere, antzinako ideologia, pentsaera judu-kristaua hain zuzen ere, ideologia eboluzionista berriaren oinarrian dagoela eta neurri handi batean baldintzatzen edo kondizionatzen duelakoan nago. Hau da, eboluzioaren teoria

20 **M**endebaldeko gizonek sortutako teoria izan beharrean Ekialde Urruneko gizonek sortutakoa izan balitz, gaur egun formulatzen den berbetan formulatuko ote litzateke? Ezezkoan nago; dibulgazio mailari dagozkion berbei aditzen badiegu batik bat. Oinarrizko irakaskuntza mailan, espezieak alda daitezkeela onartzeaz gain, ontogenia judu-kristauaren eta ontogenia eboluzionistaren artean, zein funtsezko desberdintasun garrantzitsu dago? Ez ote dugu Jaungoikoaren orde

25 **E**boluzioa ipini eta kito egin?; eta batak zeuzkan ahalmenak ez ote ditugu, besterik gabe, bestean proiektatzen?

Onartu beharra daukagu, didaktikaren aitzakiaz, sarri askotan –gehienetan esango nuke– eboluzioa pertsonifikatu egiten dugula eta eboluzioari asmoak eta helburuak emanaz, antzinako mitoetan bezalaxe, Natura irudi antropomorfitikoz betetzen dugula. Agian, horrela pentsatzeko joera naturala genetikoki baldintzatuta omen datorkigulako-edo gure nerbio sistema zentralak ezin du beste modu batean funtzionatu.

► Ideia garrantzitsuenak

Hurrengoetatik, zeintzuk dira **hiru** ideiarik garrantzitsuenak?

1. Aristotelerengandik hasita izakien eboluzioari buruzko teoriak
2. Kristautasunak gogor gaitzetsi eboluzioaren pentsamendua
3. Gaur egun espezieen eboluzioari buruzko teoria onarturik
4. Eboluzioaren ideologia modernoaren oinarrian pentsamendu judu-kristaua
5. Pentsamolde erlijiosoaren eraginez Jainkoa ikusten dugu eboluzioan
6. Didaktikaren aitzakiaz eboluzioa pertsonifikaturik ikusten dugu

► Gaia eta informazio nagusiak

Gaia
<div style="border: 1px solid gray; border-radius: 10px; width: 80%; margin: 0 auto;"></div>

Informazioak
<p>.....</p> <p>.....</p>

► Tesi izenburua

Gaia eta honekiko informazioak loturik, idatzi atera duzun izenburua, osorik: